

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen 2 zenbakiko udal zerga ordenantzaren eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen 3 zenbakiko udal zerga ordenantzaren aldaketak

Udalbatzak, 2020ko irailaren 24an egindako bilkuran, behin-behinean onetsi zuen ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen 2 zenbakidun udal zerga ordenantza (2020/11/S062 espediente) eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen 3 zenbakiko udal zerga ordenantza (2020/10/S062 espediente) aldatzea.

Erabaki horiek eta haien aurrekari guztiak jendaurrean egongo dira udaletxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, epe horretan interesa dutenek espedienteak aztertu eta egokiak deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, zerga ordenantzak aldatzeko erabakiak behin betiko onetsiko dira, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Amurrio, 2020ko irailaren 25a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA